

ERABAKIA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN BAITIRA UPV/EHUko KARRERAKO FUNTZIONARIOA IZATEKO OHIKO PROZESUAN DEITUTAKO LANPOSTUAK, 2019KO, 2020KO, 2021EKO ETA 2022KO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZARI DAGOKIONA (ERREKTOREAREN 2022KO URRIAREN 20KO EBAZPENAREN BIDEZ DEITUTAKOA).

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, administrazio eta zerbitzuetako langileen 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2019ko abenduaren 24ko EHAA, 244. zk.). UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez, 2020. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA, 262. zk.). Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez (2021eko abenduaren 24ko EHAA, 265. zk.), 2021. urteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen, eta Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakiaren bidez (2022ko maiatzaren 31ko EHAA, 104. zk.), administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza onartu eta 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintzak aldatu ziren.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2022ko urriaren 20ko ebazpenaren bidez, deialdi espezifikoetan karrerako funtzionarioa izateko hautaketa-prozedura arautu duten oinarri espezifikoak argitaratzeko agintzen da.

Karrerako funtzionarioa izateko hautaketa-prozesuetako epaimahaiak hartutako erabakiaren bidez, izangaien behin-behineko azken kalifikazioa onartu zen, puntuazio-ordenaren arabera.

II. eranskineko 8.7 oinarri orokorraren arabera, *"Behin-behineko azken kalifikazioarekin batera deialdi espezifiko bakoitzean eskaintzen den lanpostuen zerrenda argitaratuko da.*

Eskainitako lanpostuen zerrendan zehaztuta egongo dira: eskala, prozesua (eskala berean prozesu bat baino gehiago egonez gero), lanpostuaren izena, atxikipenez dagokion zentro organikoa, lanpostua zein udalerritan dagoen, lanpostu mailako osagarria eta espezifikoa, hizkuntza eskakizuna, derrigortasun data, lanaldia eta lanpostuaren betebeharrak espezifikoak."

Beste aldetik, 9.1.c) Oinarri Orokorrek zera adierazten du: *"c) Plaza huts berririk sortu bada, deialdian zehaztutako plaza kopuruari plaza gehiago gehitu ahal izango zaio, gehienez ehuneko hamar."* Oinarri horretan adierazitakoa betez, hamahiru lanpostu huts berri gehitu zaizkie prozesu arrunt honetako deialdi espezifiko bakoitzaren oinarri espezifikoetan aurreikusitako lanpostuen zerrendei, eskalen eta deialdi espezifikoaren arabera honela banatuta:

Eskala	Convocatoria específica	Puesto/s adicional/es
Gestioko Teknikariena	Orokorra	2
	Ekonomia	1
Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Laguntzaileena	Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Laguntzaileak	2
Administrariena	Administrariak	4
Administrari laguntzaileena	Administrari laguntzaileak	1
Menpekoena	Menpekoak	3

Horregatik guztiagatik eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiaren bidez (otsailaren 12ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

ERABAKI DUT

Lehenengo. – Karrerako funtzionarioa izateko hautaketa-prozesuetako deialdi espezifiko guztietan deitutako lanpostuen zerrendak argitaratzea, eta 8.7 oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, honako hauek adierazita: eskala, prozesua (eskala berean prozesu bat baino gehiago egonez gero), lanpostuaren izena, atxikita dagoen zentro organikoa, destinoko herria, esleitutako destino-osagarriaren eta espezifikoaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, lanaldia eta betekizun espezifikoak.

Bigarrena. - Ebazpen hau argitaratzea horretarako gaitutako UPV/EHUren webgunean (<https://www.ehu.eus/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) eta Enplegu Atarian (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp).

Hirugarrena - Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke gerenteari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean. Epeok erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Leioan, sinadura elektronikoa agertzen den datan,

Sin.: Juan José Unzilla Galán

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko errektoreordea

Gerentzia hutsik geratzeagatik, gobernu-taldearen ordezkapen-araubidearen aldaketa partzialaren UPV/EHUko errektorearen, 2023ko urtarrilaren 31ko Ebazpenarekin bat etorritik (2023ko otsailaren 8ko EHAA).